

ŒUVRES DU CHANOINE ADÉMA

I. - ESKUAL-HERRIKO ELIZA BESTAK

Huna orai nun ditugun udako Eliza besta urtheko alegerenak.

Jondoni Joani, eta Jondoni Petiri dire hainitz herritakoak eta lehenak.

Eliza bestak, Eskual-herrian guziz bai eder dire, beren lehen egun elizakoarekin; eta beren biharamun eta hirugarren, etchetan eta kampoan halako gozoan eta bozkarioan dohazinekin!

Erlisioneari esker ditu jende chehe eta nekhazaleak bere biziaren arintzeko egun horiek, eta Eliza ama sainduak berak nahi du bere haurrak, holako aldartetan, lehenik bere besotan, eta gero elgarren batasunean deskantsa dakizkion.

Ai balakite zembeitek zein gocho den Elizaren ume on eta leial gisa biziz, Elizaren ume on eta leial gisa bozkariatzea!

Huna zertarik dathorzkeen Eliza besta horietan gutartean oraino dirauten asko usaia edo ohidura. Lehen mendetako girichtinoek, beren eskualdetako sainduen urtheburuetan, lehia zuten heien gorphutz edo gorphuzkiak zauzkaten herrietara beilaz gateko. Hango jende onek beren etchetan leihorra eta mahaina ematen zioten: baziren ere hortakotz etche *Arroztegi* deituak... eta oraino Eskual herrian nun nahi, izen hortako bereko etche zaharrak badakuskagu, *harochtegia* makhur derrotegunak. Dembora hetan, Eliza-bestek irauten zuten orobat Otabako aste osoa, eta oraino ere hiru egunetaraino iraunarazten diotegularik, gauzak naski orduan bezalatsu dohazi gutartean, herririk hoberenetan segurik.

Igandeko ohore nausiak, bai goiz, bai arratsalde, lehen bezala, elizako ofizioeri eratchikiak zaizkote gure herri oraino girichtino dauden guzietan...

Arte hortan, eguerdiko othoitzak etche bakotcheko mahainean jarrazten ditu, bil ahalikako ahaide eta adichkide guztiak.

Bezperetatik lekhora, lege da pilota partida bat bedere jokha dadin

herriko pilotari hoberenen artean; gisa ere da, aphezetarik hasirik, herriko buruzagi, etcheke jaun, beren burua zerbeit daukaten zahar eta gazte guziak, dohazin orduan errebotera, Eskualdun legezko jokoari eta pilotarieri ohore egiteko.

Besta biharamuneko jeiak eta hainitz tokitan hirugarrenekoak ere, ahalik eta handizkiena atchikiak dire etchetan, errebotean eta herriko plaza nausian.

Zembeit urthe huntan, munduaren bazter guzietarik hunat jorik, Jaun jendezale jakintsun batzu badabiltza, gure Eskual herriak nolakoak diren, gu Eskualdunak zer garen,... eta eia gure aztura zaharrek oraino badirauten,... gu ahalaz bertze jendetarikako berechtasun garbi hartan ikusi beharrez.

Gure Eliza-besten erdian; agerienik eta ederrenik garen hartan zaiote lakhet gure ikustea eta ja gutaz fama handia barraiatu dute munduaren asko bazterretan.... Berak ez izanagatik ere oro gure erlisione berekoak, eder eta ohoragarri zaizkote elizan eta kampoan gure Fedez ematen ditugun ageri guziak.... Eguerdiko *Anjelus*, plaza bethean buru has erraten dugun horrek berak, goratzen beizik ez gaitu heien estimuan.

Espantu handiak dituzte gure erreboteko pilota partidez, eta hek diotenaz, ez omen da munduan jokorik, hala agertzen dituenik gizonaren gaztetasuneko antze noble guziak. Zamari eta zezen korrida guziek ez omen dute hori balio.

Eskualdunen ona eta ohorea bilhatzen duten gizon argitu guziek diote, Eskualdunak behar lukeela bethi egon eta agertu Eskualdun, utzi gabe galtzerat bere aztura, eta berechkida zaharrak; ez baitu deus orai artio irabazi bertze edo zoin jende arrotzen iduriko edo meneko jarritz. Itsusten eta mendratzen beizik ez du bere burua heien jestu, moda, mintzaia eta berrikeriak ederragotzat hartuz.

Laphurdiko seme bat, gaztean pilotari eta Plaza gizon eder izana, urthe luzez urrun toki arrotzetan egonik, berriroski Eskual herrirat itzulia, entzun dugu nardatua mintzatzen, hemen gaindika ikusi dituen Eliza-besta batzuez. Jaun horren lehen hitza zen: «Debrua joan du Eskualduna.»

Eliza batean, kantika frantsesak,... predikua ere frantsesez.... Besta hiru egunetan nihun kasik erreboteko partidarik gehiago jokhatzen; orotan pleka eta pleka beizik ez... Muthikoska batzu karta frantsesekin jokotan eta frantsesez mintzo; handiagoko batzu kaskoin herrietan bezala girletan; bertze andana bat ostatuan frantsesez kantu errepikan. Herriko plazaren erdian, dantza frantsesik baizen ez; dela polka, dela machurka, dela eskotich, eta purtzilkeria, herri handietan hiriko musika batekin; ttikiagoetan chirri bika edo klarinet soinu;... Eskualdunen

leheneko thamburin eta chirola alegera hura nihun ez gehiago ageri..... ez eta irrintzinarik ere kasik nihun.

Erran dugun jaun horrek herri batean galdegin ditu muchikoak; chirribikari chahar bat, hain chuchen bazuten jotzen zakitzana: ez zen gizon gazte bakhar bat han Eskualdun dantza hortan piko baten ere ematen zakienik. Hiru hogoi urthez goitiko bi Mugertar athera ziren, behari guziak harritu baitziren eta loriatu hekien jauzi eta urrats nobleen ikusteaz. «Ez da beraz, zioen, ez, ez da gehiago ez Laphurdin ez Bachenabarren gazteria eskualdunik.» Denik ere Chuberon, hobekichago daduzkate lehengo josteta zaharrak.

Espainia alderdiko Eskualdunak azkarkiako atchikiak dire beren arbasoen demboretako oitura guzieri. Donostiako hirian, beren bestarik handienetan, Bestaberriko proasionean berean, harmadako musikaririk ederrena baino lehenago eta buruzagiago daukate beren *dambolina* eta *chilibitua*. Hau aintzin aintzinean, gero da musika osoa. Eliza bestetan kampoko jei guziez artha handia du herriko alkate jaunak. Dantzak berak, haren manuaren meneko dire. Dantza hek gureak ez bezalakoak daukate; gehienak eta ohorezkoenak Mairuen demborako, eta bertze aspaldiko gerlen eta gerthakari handien orhoitgarriak dituzte, eta hainiz gisetakoak. Frantziako dantzak han gaizki ikusiak eta debekatuak ere litezke; jende chehea bera asalda laite. Iguzkia sarthuz geroz, dantzatik etchera helduak ez litezken neskatchak segur harrikatuak laizte.

Erran gabe doha Espainiako Eskual-herrietan ere ez dela pilota partidarik gabeko bestarik. Gutti beharrez hau ere, asko herritan nausitu zaiote plekako joko, gurea baino oraino sorjesagoa, ezker sahetseko bigarren pareta batekin nekhe baita hala falta baten egitea guziz ezkerdoentzat,... bethi jo, eta jo berak,... kintzeek ez dute han akhabatzerik plekari lehertueri hatsak eskas egiten diotenean beizik.

Hala hala, hango jendea asea bide da orai plekako joko hortaz, eta errebotean lehen bezala artzen hasiak omen dire pilotariak, erreboteko plazak oraino oso dauzkaten tokietan.

Frantzian, maizenik segurik, plekariak sahetseko paretarik gabe artzen dire Espainian baino meritu gehichagorekin:... bainan halere, behinik behin esku huska, eskasa hain urrun;... pareta hain zabal eta gora.... bethi kasik joak eder, indarra adrezia baino nausiago: ichtripuz baizen kintzen ezin trenka;... horra esku huskako plekaren edertasuna, eta gu horri beha zoratuak egoten!. . bertzerik ez izanez. Badire ere plekariak joko hortan fama ederra eta jornal handiak ja irabazi dituztenak.

Chichteraz pleka ari direnek, zafra gaitzagoak, eta ikusgarriagoak dituzte; eta zein urrun eta zein zorrozki! Damurik dire horien joen

erdiak falta, sobera atchikiak diretakotz;... chichtera luze horren barnean bi pumpa frangotan eginik, berges jujatuak izan behar litezkelakotz. Halere orainokoan on hartuak zaizkote guziak. Atchiki arras lasterrik baizen ez daiteke haizu.

Pleka artze horrek gure gazteriarri galarazi dio erreboteko jokoaren gustu eta antze guzia, Lehen plaza batzuetan ez zen haizu pleka artzerik. Eder zen orduan ikustea zembat pilotari athetratzen zen Saratik, Hazparnetik, Ezpeletatik, Khambotik, Zuraidetik, Ahetzelik, eta bertzelarik, erreboteko jokoak zelakotz bakharririk onhetsia.

Orai ez dugu halako pilotari ederrik, zaharrik eta lehenekoen hondarrik beizik: direnak ere ongi estimatzen baititugu. Horiek ganez geroz, egin du gure Eskual-herri alde huntakoaren ohoreak.

Hargatik ez gagozke hola.

Eskual-herrian ez daiteke behar bezalako bestarik erreboteko partidarik gabe.

Nun dire ordean, eta zer ari dire gure muthil gazte gehienak? Igande eta besta egunetan han omen daude ostatuetan edo zokhotan: ez da hamhat zainhart izan behar hortako. Pilotari ohi zahar batek zion berriki: «Oraiko gazteek odola arno bilhakatua dute.»

Halere ez ginuke etsitu nahi; bainan zer egin?

Diote zembeitek, oraiko chichterekilako jokoak errobotean gaitzegia dela... Nork bihur pilota erreferak urrunegi edo ezin hartuzko tokirat igortzen duena? hala nola plazaren zolako burua dena zokho eta izkina, dena leiho eta theilatu denean?

Batzuen arabera behar litezke faltatzat ezagutu errefera aldetik 90 garren metra pasa lezaketen jo guziak: ordean hori liteke errefera aldekoeri beren indarraren khentzea.

Huna gutiz gehieneri zer zaioten hoberenik:

Ez litekela behar erreboteko plazarik, zolako buruan, bedere bortz metra gorako pareta bat gabekorik.

Aski laite orduan plazak ez dezan izan 90 edo 83 metra baino luzetasun gehiago.

Erreferatik ehun metra eta gehichagotararik lohazken pilota guziak pareta horrek plaza barnean atchik letzazke, zola hartako erreturnalariaren menean, eta orduan liteke, bi buruetako, artetako, errechachako eta paso marrako pilotarien josteta zinez emendatua eta guziz usu atakatua.

Urruñako errebota liteke molde eta negurri arras onekoa, zolako pareta gorago balu.

Pareta hori madrigaz eta thaulaz ere liso eginik, frango laite, eta pilo-

tari zembeiten arabera hobe baizen ez, hark gorachko hartu pilota ez dadin sobera urrun errembolia.

Badire zurginak holako baten egitea beren gain har lirotenak 250 liberetan, oro berek forni, eta oraino merkeago, zerbitzatu eta materiala berentzat geldi: ezen thaulazko pareta horrek abantail hau ere badu: plazaren nahi den heinean ezar baititeke eta gero nahi denean khentzeko errecha baita.

Bertzalde, muthikoek arras gaztedanik ikhas dezaten erreboteko joko handia, herrian ontsachko direnek, guziz buruzagiek eta aphezek ere elgar adituz, behar liozkete eman igande guziez ofizio artetan, ez bertzela, ar aldi bakhotcheko pilotak eta chichterak, pleka hargatik ez artzekotan.

Noiztenka, eta bereziki Eliza bestan, 17 urthez azpiko bizpahiru muthiko plazaren buru batetik, bertze bizpahiru bertze burutik behar litezte ederka bederen arrarazi, zoinek luzekiago harat hunat pilota onean ibil holako kintze bakhotchean. Hobekienik jokhatzen denari litzaioke hamar edo hogoi liberako sari bat, eman, eta hobe oraino bi hobereneri..... On ere liteke behari ongichko holakotan bil balakiote ikhastiar gazte hoieri plazarat.

Bada josteta tcharragorik dirua aise, eta behar gabe ere? nor nahik ematen dioenik. Arren hau gauza beharra da; egintza edo obra on beharretarik da gazteriaren onheski libertiaraztea; eta hortaz kasu ari ez direnek ez dute girichtino adimendurik. Herri eta jende aberatsek eginen ahal dute oraikotik emaitza ederrik, gure pilotako ohorea alchatu nahi duten muthikoeri... Hargatik ez ginezoke gazte bihi bati kontseila pilotako jokoaren bere ofizio guzitzat hartzerik; bertze bizi modu eta irabazbide ohikoak lehen baitire.

Demboraz aitoren semeak ziren, eta gure orhoitean oraino etche hobenetako seme eta nausiak berak, igande eta bestetan pilotan artzea ohore zitzaietenak.

Sarako besta bezpera batez, Michel Hauziartz handiak, Emperadoreari zion ongi ethorri egiten bere etchean; eta gero besta biharamunean Batichta Kaskoina, itzaina, bainan pilotari famatua, zuen jarrarazten ohorezki bere mahainean. Arratsaldean aldiz, biek jokoa egin, ari izan ziren errebotean, eta partida Kaskoinak zuen irabazi.

Lehen ez zen pilotaririk pagatzen... partida handi batean agertzea orori eder zitzaien... Desafioa handiago eta ihardoki nahiago, bazohazin berek jokhatzen zuten diruaren irabazteko edo galtzeko menturarat.

Gan dire demborak.; Orai hargatik herriz kampotik, guziz Espainia-tik ekharrarazten diren pilotarieri zuzen da eman dakioten beren gastu eta gal bideen saria eta zerbeit gehichago ere artze saritzat. Orobat zuzen

da jar lekhu edo barrerak beren gostuz ezarri dituzteneri paga dakioten behar dena; edo egon hetan jarri gabe.

Erreboteko partida bati beha osoki gustu hartzekotz, jakin behar dire joko eder horren lege eta gora behera guziak. Huna premiatsuenak.

Partida egiten da hunembertze jokotara; maizenik hamahirueta.

Jokoak baditu lau kintze: lehena kintze, bigarrena trente, hirugarrena kuantte, laugarrena joko.

Bi alderdiak kuanttean berdintzearekin, biak jausten dire trenterat eta oihu egiten da *ados*. Hori joko berean gertha daite behin baino gehiago.

Pilota bat baratua denean paso-marraren eta erreboteko eskasaren artean, horri erraten zaio *chacha* edo *arraia*.

Nola hobe baita errebotean izatea botako alderdian baino; botako edo plazaren zolako alderdikoek egin ahala egiten dute erreferaz jabetzeko. Hortako behar dituzte bi *arraia* joko berean; bainan batek edo bertzeak kuantte balin badu, orduan kuanteko *arraia* bakharra aski da zolakoen erreferarat eta erreferakoen zolarat aldaratzeko.

Alderdi bakhotcheko pilotariak lau edo bortz dire: Botako alderdian, botaria; zola urruneneko *erreturnaria*; hoiien bien arteko bat edo bia; eta paso-marrako edo hurbileko bat edo bis.— Errebot alderdikoak ere lau edo bortz dire: erreferaria askotan lagun batekin; eta bertzeak paso-marra arte hartan errechachari.

Botariari dohako ahalaz bota gaitz eta zorrotz aphilaren erreferariari sakhatzea, edo pik, edo pik-ondo edo leherraraztia.

Erreferariak behar du erne egon, eta azkar bezein zalhu izan, pilotaren bederen paso-marraz harat igortzeko. Handik ez badiote itzultzen, kintze du.

Zolakoez harat igorri guziak behar dituzte paso-marraz hunat itzuli ahalaz *chacha* egiteko gisan:... errebot barneraino itzulia han baratzen bada, kintze dute; bainan erreferariak huts eginez, pilota handik atheratzen bada, erreferatua balitz bezala da eta lau metretan *arraia*.

Erreboteko jokoan herrestan dohan pilota ona da baratzen den edo duten ponturaino.

Arraia baktotcha erreferan sarthu denarentzat paso-marra balitz bezala da; hura pasa eta paso da pilota.

Askotan jo ttiki eta labur batek, guziz herrestarat igorriak, balio du jorik handienak baino gehiago.

Irakuspen hautarik ezagun da erreboteko jokoak plekakoaz bertzerik dela. Lachoko edo luzeko jokoak errebotekoaren lege bertsuak ditu: botan du diferentziarik handiena.

Jokoaren harat hunat hoikieri beha dagonak behar du beraz erne egon: hala hala, zer atsegina hori jokoak ezagutzen duenarentzat! Eza-

gutza behar dena ez dutenek ez dute prezatzen jo eder eta harat hunat urrun dabiltzan hetarik baizen.

Suedako errege berriki Miarritzen zelarik, erreboteko partida bat Frantziako eta Espainiako pilotari hobereenek jokhatu izan diote Gethariako plazan, eta hainitz eder atzeman du partida hori.

Bera ere gaztetik indarkako eta adreziatzko zer naki joko handitan trebe izana,... ez omen zuen uste bazitekela nihun gazteendako erabiltza hoin ederrik eta gizonkiaren arizari hobeki dohakonik. Zion oraino: «Eskualdun gazteria pilotari hautarik juja balin baditeke, pare gabea da munduan»... Plekako partida bat gero hargatik ez zitzaion hurbiltzeko ere hain ikusgarri iduritu. Bere erresumarat itzuli denean, ereman du berekin pilota, eskularru eta chichtera parrasia bat, bai eta liburutto bat gure erroboteko jokoaren esplikazioneekin; nahi bailuke Suedoan ere hemen bezala pilotan ar dakizkion gazteak.

Badu jadanik zembeit urthe Parisen, Angeletarren eta Beltchikan, gure Eskual-herriko pilota partidak hain eder atchemanik, zoinke hobeki ikhas, ari direla pilotan. Pleka bai, aise ikhas dirote; bainan nekhez hetan athera daite behar bezalako errobotlarik. Eskualduna da bakharrik sortzeak emanik hortako aski antze duena, bai besoz, bai zalhutasunez, bai begiz, bai indarrez, bai buruz eta asmuz. Eskual-herria da egundainotik, eta agian bethi, izanen ere pilotaren Ama.

Frantziako eta Espainiako Eskualdun guziek, zer ezagutza eta esker onak ez diotzote zor Jaun Anton Abadia zenari! Hark zakien hark Eskualdunen ohidura zaharren balioa eta edertasuna. Zembatenaz ere Eskualduna atchikia baita bere arbasoen erlisione, mintzaia, lege, aztura, jei, joko, josteta eta libertate edo fueroeri, hambatenaz zitzaton gorago ezartzekoa jendaiarik, handienen herronkan.

Horra zerk zion gogoratu holakotan beren burua hobekienik agertzen zuteneri prima edo ohorezko garhait sarien ematea.

Sari horietan handiena erreboteko pilota partida ba tentzat zuen.... Erreboteko plaza aski handirik ez zen tokietan, bera plekari azkar izana zelakotz, plekarieri ere ematen zioten prima ttikiagoko bat.

Bere azken egunetan gaitzi zitzaion erreboteko jokoia utzia izatea, berak horren fagoretan hainbertze egin eta. Plekako partidarik baizen ez zuten herrieri ahalkerik ez eman nahiz, bere chede eta gogoaren kontra, aintzina zohan bere emaitzetan; ez zuen hargatik uste herri aiphatu zembeitek beren aspaldiko ohoreari hola ukho eginen zutela beren eliza bestetan beretan, eta ilhungia horrek hainbertze iraunea ziotela.